

# MENDIKO ZINEMARIK ONENA BILBOTIK ABIATUTA MUNDU OSORA

NIVES MEROI ETA ROMANO BENET OMENDU DITU BBK MENDI  
FILM BILBAO – BIZKAIA ZINEMALDIAK WOP SARIAREKIN

Sala BBK Bilbon, pelikula zuzendari eta egile desfilea photocallean: Alastair Lee, Pawel Wysoczanski, Eric Becker, Chase Ogden, Krystle Wright, Pablo Iraburu, Jesus Mari Lazkano, Santi Yañiz, David López, Lexeia Larrañaga, Janire Etxabe, Jon Goikoetxea, Iker Larrañaga... Uau! Hau da dirdira, hau!



WOP Saria. Nives Meroi eta Romano Benet

Euskara jasoan, "gora gu ta gutarrak", oihukatu du streaming-eko mikroa hartuta Wysoczanski poloniarrok. Duela 40 urtez geroztik, badaukagu, bai, poloniarrok eta euskaldunok mendien aitzakian aliantza berezi bat, eta horri zor dio deiar

inprobisatua. Eskertuta daude, aldi berean, haientzat ikurrik gurtuenetakoa den Jerzy Kukuczka-ren heriotzaren 30. urteurrenaren inguruko ekitaldiak antolatu izanaz, tartean alarguna, Celia Kukuczka, gonbidatuz. "Gu" hori, ordea, zinegileen



Alastair Lee



Cholitas



Eguzkilore Garaikurrak

eta zuzendarien aldarrikapena ere bada -Wysoczanskirena da Kukuczka buruzko *Jurek* filma-. Mendiko zinemagintzaren eragile garrantzitsuak dira, eta erakusleho bikaina da haientzat BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia.

Krzysztof Wielicki, Cholitask andinistak, Horia Colibasanu, Ederne Pasaban, Siebe Vanhee, Alberto Inurrategi, Christian Pondella, Ricardo Montoro... Haiek ere bai, haiek ere pasatu dira kameran aurretik, eskaini dituzte makina bat elkarriketa, sinatu dituzte autografoak, dedikatu liburuak, eta batik bat, eskertu dute abegi ona. Pelikuletako protagonistek, gustura bizi dute jendartean biltzea, euren jarduerengatik aitortza jasotzea, eta batez ere, esperientziak partekatzea. Areago, hemen, Euskal Herrian. Mendiko Kultura ulertu eta bizitzeko dugun moduak, miresmena sortzen du bisitatzen gaituztenengan. Nives Meroi eta Romano Benet, daude hori indartzen dutenen artean. Euren ibilbidea saritzen duen WOP-The Walk On Project 'Eguzkilore' garaikurra jasotzera etorri dira, sokadari leial, masifikazio handinahietatik ihes, eta 14 zortzimilakoen erronka era apal eta zintzoan burutzeagatik. Eta garaikurraz harago, zaleen, ikus-entzuleen eta antolakuntzaren abegi ona izan da haientzat sari preziatuena.

*Glamour* puntu jator batean murgilduta, 10 egunez, Bilbo mendiko zinemagintzaren ardatz izan da berriro. Publiko marka berria ezarri du azken edizioak, Bilboko aretoetan 12 360 ikusle bilduta. Sala BBK, Golem Alhondiga zinemak, Euskalduna Jauregia, eta baita ETS-Zazpikaleak/Casco Viejo geltokia ere, mendia, abentura, muturreko kirolak, natura eta ingurumen gaiak jorratzen dituzten pelikulen agertoki izan dira.

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia pisuzko zinemaldia da nazioartean. Mundu mailako 10 estreinaldi egin dira, Europa mailako beste hiru, eta guztira 172k aurkeztu dute Sail Ofizialerako hautagaitza 29 herrialde ordezkatzuz, inoiz izan den kopururik handiena.

Eta abenduko hitzordu nagusiak hauspotuta, urte osora zabaltzen da haren oihartzuna, Mendi Tour zine zikloa: Donostian, Gasteizen, Iruñean, Tolosan, Leioan, Igorren, Agurainen, Irurtzunen, Elgoibarren... Eta bertatik abiatuta, Espainia osoan: Errioxa, Kantabria, Asturias, Galizia, Gaztela eta Leon, Extremadura, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Aragoi eta Madrilera hedatuta dago zinemaldiko pelikula onenen mostra ibiltaria.

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia eta Mendi Tour batuta, 28.000 ikusletik gora bildu ziren 2019an mendiko zinemagintzaren inspi-

razio eta magiaren bila. 2020ko Mendi Tour zirkuituan lor liteke orain hori guztia: *Treeline*, *Cholitas*, *Manaslu*, *Ostatnia Gora*, *Climbing Blind*, *Nebula*, *Harria Herria*, *De Locos*, *Sense Return*... [www.mendifilmfestival.com](http://www.mendifilmfestival.com)-en daude haiek ikusi ahal izateko agertokiak eta datak. Bilboko abenduko hitzorduak, bere aldetik, lotuta ditu egunak: abenduaren 4tik 13ra, BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia zinemaldiaren 13. edizioa.

Haren kartel ofizialeko irudia CVCEPHOTO mendiko jardueren nazioarteko argazkilaritza lehiaketak ekarriko du. Chistian Pondella-ren *Top of Africa* (2019) eta Christoph Jorda-ren *The Lighthouse* (2018) argazkien ondorengoa, BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia 2020ko irudi ofiziala, maiatzaren 30ean ezaguturaziko da Donostian, CVCEPHOTO lehiaketako 6. edizioaren sari banaketa ekitaldian.

## BBK MENDI FILM BILBAO – BIZKAIA 2019KO PALMARESA

<b>SARI NAGUSIA</b> Eguzkilorea eta 6.000€	<b>TREELINE</b> Jordan Manley   2018, USA
<b>ZUZENDARI ONENA</b> Eguzkilorea eta 3.000€	<b>DARIUSZ ZALUSKI</b> OSTATNIA GÓRA   2019, Poland
<b>GIDOI ONENA</b> Eguzkilorea eta 2.000€	<b>FINAL ASCENT: THE LEGEND OF HAMISH MACINNES</b> Robbie Fraser   2019, UK
<b>ARGAZKILARITZA ONENA</b> Eguzkilorea eta 2.000€	<b>CIELO</b> Alison McAlpine   2018, Canada
<b>EPAIMAHAIAREN SARIA</b> Eguzkilorea eta 2.000€	<b>CHOLITAS</b> Jaime Murciego & Pablo Iraburu   2019, Spain
<b>MENDIKO FILM ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.500€	<b>OSTATNIA GÓRA</b> Dariusz Zaluski   2019, Poland
<b>ESKALADAKO FILM ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.500€	<b>CLIMBING BLIND</b> Alastair Lee   2019, UK
<b>KULTURA ETA NATURA FILM ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.500€	<b>THE RIVER AND THE WALL</b> Ben Masters   2019, USA
<b>KIROL ETA ABENTURA FILM ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.500€	<b>HOME</b> Jen Randall   2019, Canada
<b>FILM LABUR ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.000€	<b>NEBULA</b> Jay Trusler   2019, Canada
<b>EUSKARAZKO FILM ONENA</b> Eguzkilorea eta 1.000€	<b>ARTIKO</b> Josu Venero & Jesús Mari Lazkano   2019, Spain



Krystle Wright



KUKUCZKA



Ternua Friends